

# KOLABORAZIOAK

José Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / Hizkuntzalari eta idazlea

## Izendapenen trukaera

**G**URE arteko konponezinak, «semantika» arazoetan funtsatzen omen dira. Hitz berberak erabiltzen omen ditugula denok, bai; baina nork bere adiera erantsen omen diegula.

«Berak» («begizta urdinekoak», alegia), bakezaleak omen dira; eta besteok, berriz, ez begiztan ez al-kandora urdinik erabiltzen ez dugunok, indarkeriaren aldeko, bortxakoi, faxista, eta nik dakita zer besterik.

Baina, errepikapenaren iraunkorraz eta luzeaz, Ajuria Eneko Ituna asmatu eta elikatutako ipuin argelak («violento/demócrata» famatua) sinesten hasiak dira batzuk; nondik edo handiak.

Berez-muga, hitz batez, Asis-tar urzapalak, batetik, eta gu, ifernuko bortxazaleok, bestetik, banatzen gaituen lerroa omen da. Arcaogo, berak «gandhi-zaleak» izanik, omen; eta guk adarrak eta isatsa agirian darabatzagularik.

Eman dezagun, ordea, begizta urdinekoak bakezale zerutiarrak direla. Nola ez dute, horretara, deportatuen estradizioa ozenki gaitzetsi? Arrisku guztiak beren gain hartuz, legea hautsi, eta hortxe, Baionako Katedralean, itxaron baitute deportatu abertzaleek frantses Poliziaren etorrera.

Horixe da, «pacifista» delakoei gaitzi bazaie ere, Gandhi-ren ildotik jotzea: «*subir avec calme la peine encourue par l'infraction*» (Jean Marie Müller, 1972).

Gandhi-zaleak ez du eskubidearen kontra ezarritako legetasuna errepetatzen. Legetik at jartzen du bere burua; eta ez dio ondoriozko bere erantzukizunari ihes egiten. Gandhizalea prest dago bere larraz ordaintzeko. Britainiar okupazioaren kontra Indiaren Askatasunaren aldeko borrokan, Gandhik hamaika aldiz egin zuen bezala. Ez Londresekin eskuz esku, bertako abertzaleen kontra; Londresen kontra baizik.

Euskaldunok eskubide osoa dugu geure herrian bizitzeko; espainiarrek Espainiatik urrundak ez izateko duten berbera. Eskubide hori ukatzen digun lege-markoa, Zuzenbidearen kontrakoa da.

Nork egin dio aurre Gandhi-ren bidetik? Deportatu... «violenteok», entzuten dugunez.

Baina deportatuak, Baionako Katedralean kokatuz, gandhismo bete-betean barrera abiatu dira. Zeren zai daude, beraz, gure pacifistak txalo jotzeko? Nola ulertuko dugu begizta urdinekoak isilik agertzea? edo-ta sutan haserreturik?

Antzeko kontraesana gertatu da Itoizko Urtegiaren sabotaiakoan. Solidarioek beren gain hartu zuten kable-ebaketaren erantzukizuna, eta ez ziren bertatik mogitu. Lege-hausteta zela-ta zetorkiekeen zigorra ordaintzeko prest, gartzelara joan ziren.

**Nork egin dio aurre Gandhi-ren bidetik?**

Bi jokabide bortxagabe miresgarri horiek, gandhismo huts-hutsa izan dira. Baina gure «pacifistak» miretsita gelditu beharrean, Nafarroako legea aldatzeari ekin diote, gandhizaleak gogorkiagotzeko... Zergatik? Hauxe da denok geure buruari egin behar geniokeen galdera.

Zinez dirudi begizta urdinekoen eragilea ez dela, inondik ere, bakezaleak *statu quo* politikoa honen zaindariak direla: Euskal Herriaren erdibiketa, erdalketa, eta Hetero-Determinazioak oro barne.

Berrio ikusi dugu egun hauetan. «Pacifista» delakoei «*queremos paz*» oihukatzen dutenean, «*queremos*

*mantener a toda costa el actual ordenamiento franco-español*» adierazi nahi dutela. Kaleak zaborrez zikinduta agertzeak kezkatzen ditu, ez zaborrak zergatik agertu diren jakiteak.

Horregatik gelditu dira mutu eta hotz deportatuak estraditatzeari, eta horregatik gaitzetsi dute Itoizko ekinza bortxagabea.

Baina gauzak itzuletera begiratuz ere, ondorio berak iriten dira.


Gandhismoaren ekinbide politikoa nagusia, gose-oporra da. Hots, harritagarria, gure ingurueta «*pacifista*» delakoei ez dute sekula gose-oporrik egin; horretarako, nonbait, aukerarik ez somaturik... «Gesto»-koek, eta antzerakoek, beren bataioko gose-oporra egingizun daukate oraindik; eta Donostiako Artzain Oneko grebalariek ez dituzte maiz bisitatzen.

Eta, alderantziz, ugari burutu dira gose-oporrik Euskal Herrian azkeneko urte hauetan. *Pacifistak... mutis!* Gose-opor horiek, gainera, latzak izan dira batzutan. Gose-oporreen hil zen Crespo Galende enkarterriarra. Eta hura ere ez zen PNVkoa, edo Kalonjea; ezker muturreko militantea baizik.

Irlandan ere IRA-koek egiten dute gose-oporra, behin eta berriz. Eta gurean 20, 40, auz 50 egunez ere, gose-greba gogorak burutu dituzte ETAkoek; «*violento*» nazkagarriek, beraz. Artean Arzalluzek, Garaiokoeak, Atutxak, Markiegik, eta gainerako «*pazifistek*», ongi jateari eta edateari eutsi diote beti. Nahiz, lotsagabeki eta barrengarri agertzeko zentzua galdurik, «*propaganda hutsa*» ikusi baitute denean; are Jon Idigoras miresgarriaren gartzaldian ere.

Ez da jadanik serioa ere herri hau zatitzen duen berez-leerroa bortxa/ez-bortxa lerroan ipintzea. Muga oso garbi agertzen baita: legetasun franco-español honi bai esaten diotenak; vs. lege-marko honi ez, eta «Euskal Herria askatu» oihukatzen dugunok.

Eta, amaitu aitzin, eta ultra-pacifista horiei zuzendua: «*Là où le cloix existe seulement entre la lâcheté et la violence, il faut se décider pour la solution violente*». Zer diote begizta urdinekoek Gandhi-ren aholku famatu hau irakurtzean?



## SEMAFORO GORRIA

Xabier AMURIZA

### Gure bozeramalea

**G**URE bozeramale eta nire «paisano» Jon Idigoras mai-teari semaforo honen kolorerik gorriena, erakutsi duen duintasun eta templegaitik. Bizkaitar labeldun altzeiru gordina. Baita ongi etorrria ere, atzerapen apur batez izan arren, semaforo honi, idaztetik kaléan gorritzera, egun batzuk joaten baitzaizkio eskakizun teknikoengatik.

Honezkeru Aramotzeraino helduko hintzen, ezto? Gorbeijeraino noz? Biharbada hoba ixengok Bizkergittik hastie. Mendi honek gainera, hik nik baino hobeto dakikenez, gure lengo gudarijiekaz zeri-kusi arteza ijekok. Aitegiñerraba zanari entzunde ijekotxiat hantxe ikusi zeuela gixon bat goitti behera aineketa buru barik. Hori be ikusi ein biok, eh? Abioiek agertu eta danbarradan hasi ijakezanien, tonto-

rrien eusten egozanak erretiradik jo bixen ijueen eta, goitti bera galdugordien jjoazala, gudari bet metraille zatijjen batek sama-saman apareu jjoan, antza, eta burue moztu. Eroien abijjadan, gorputzen metro batzuk eurrera zutunik ingo jjoazen eta gure aitegiñerrabak momentu haxe ikusi. Etxakoan sekule aztuko, ezta neuri be, Bizkergin entzun nosetenik. Pentsetie be lurrien bueltaka joango zan buru harek zelako arpeijie eroango jjoan!

Hi, Jon! Egijje'ok eder-terapijiek einde etorri hazena? Gure umie, hire irudijiek ikusikeran, aineketa etorri zoran maire: «Aitte, aitte! Beittu nor daoen telebistan!». Gero apur bet tenteu najjoan: «Zelako gixona dao, ba?». Eta berak erantzun: «Len baino goapoue». Eta nik: «Bai gero? Nun igertotsezu, ba?». Eta berak: «Danien!». Joño! Txokeu jjakuan danori, baia harek, antza, laster someu euan zozer, gure begire berandutxoak helduko zana.

Garzon epailearen kontzientziari honezkeru poro demokratikoren bat irekiko ahal zitzaion! Pentsatzen hasten zara eta, etsai-bandoko logikara errenditzen ahaleginduta ere, nekez hartuko diozu antzik. Zergatik eduki dute gizon hau bahiturik? Diru erreskate bat lortzeko, bere osasunaren delikatuaz baliaturik? Demokrazia ondusun ez-desiratu bat dela erakusteko? Zeren, euren zorioreko demokraziaren barruan, «alternatiba demokratikoa» derizton dokumentu bategatik gizona zuzoratzea ez da batere ulerterraz. Arzalluzen interpretaziora jo ezik: «Ordaindu egin behar lukete espetxea, hantxe egon nahai baitute». Ez da harriztekoa jesuita ohiak espetxea hain baikor ikuste, jasatea egokitu zaien sakrifiziorik handiena urrezko kalizatik edatea izango baitzen.